



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 25a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa, 2019ko maiatzaren 26an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza alderdi eta formazio politikoei ordaintzeko (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, Nafarroako errepideen egoera ona bermatzeko politika orokorrari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (6. or.).

—Interpelazioa, zerga-arloko politika orokorrari buruzkoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (6. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten baitu prozesu judizialaren funtzionamendu zuzenarengatik, horrek egiaztatzen baitu zuzenbideko estatu demokratikoa-
ren funtzionamendu egokia. Eledunen Batzarrak onetsia (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga pizgarriak ezartzeko aukerari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (8. or.).

—Galdera, Kudeaketa Kliniko eta Zerbitzu-ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren agintari-taulari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (10. or.).
- Galdera, SISNA txostenari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, kontsultetan itxarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (11. or.).
- Galdera, erretzeari uzteko tratamenduan vareziklina kostuarekiko eraginkorren den aukera gisa finantzazteari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (12. or.).
- Galdera, erizaintzako azken Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako lan-istripuen tasari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroarako 2020rako dauden hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenen gainekoa. María Jesús Valdemoros Erro andreak egin du (16. or.).
- Galdera, etxebizitzak alokatzeko Poltsaren programari buruzkoa. Francisco Pérez Arregui jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (17. or.).
- Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (17. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa, 2019ko maiatzaren 26an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza alderdi eta formazio politikoei ordaintzeko.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2019ko urriaren 16an hartutako Erabakiaren bidez, honako foru lege proiektu hau igorri dio Nafarroako Parlamentuari: “Foru Lege proiektua, kreditu berezi bat ematekoa, 2019ko maiatzaren 26an egin ziren Nafarroako Foru Parlamenturako hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza alderdi eta formazio politikoei ordaintzeko”.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Osoko Bilkuraren esku jartzea aipatu foru lege proiektuaren izapidetzea zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzko erabakia.

2. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proiektua,
kreditu berezi bat ematekoa, 2019ko
maiatzaren 26an egin ziren Nafarroako
Foru Parlamenturako hauteskundeetako
gastuak finantzatzeko
dirulaguntza alderdi eta formazio
politikoei ordaintzeko**

ATARIKOA

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak 44. artikuluan ezarri duenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak dirulaguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle batasunei, hauteskundeetako gastuak finantzatzeko.

Foru lege beraren 48. artikulua xedatutakoa- ren arabera, Nafarroako Gobernuak, Kontuen Ganberak hauteskundeetako kontabilitateen erregulartasunari buruzko txostena igorri eta ondoko hilabetean, foru lege proiektu bat aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, esleitu beharreko dirulaguntzen zenbatekoa adinako kreditu berezia emateko; dirulaguntza horiek Parlamentuak proiektua onetsi eta ondoko hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dira.

Foru lege honen xedea da indarreko hauteskunde araudian ezarritako agindua betetzea, 2019ko maiatzaren 26an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeek sortutako gastuak finantzatzen laguntzarren.

1. artikulua. Kreditu berezi bat ematea.

1.301.949 euroko kreditu berezi bat ematen da 2019ko Gastuen Aurrekontuko “Alderdi politikoen- tzako dirulaguntzak” izeneko 010001-00001-4819- 912100 partidaren kontura.

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

Aipatutako kreditu berezia finantzatzeko, 1.301.949 euro zehazki, "Itzulketak" izeneko 110003-11130-3800-000000 partidan izandako diru-sarrera handiagoak erabiliko dira.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, zeinaren bidez indargabetzen baita Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2019ko urriaren 17an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua indargabetzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu zuen, eta 2019ko irailaren 4ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko

goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluko 5. apartatua indargabetzen duen Foru Lege proposamena, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Foru Araubideko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2019ko azaroaren 19ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteak eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, Nafarroako errepideen egoera ona bermatzeko politika orokorrari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa, Nafarroako errepideen egoera ona bermatzeko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Interpelazioa, Nafarroako Gobernuak Nafarroako errepideen egoera ona bermatzeko darabilen politika orokorra azal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Interpelazioa, zerga-arloko politika orokorrari buruzkoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko interpelazioa, zerga-arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen M^a Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, zerga arloko politika orokorrari buruzko interpelazioa aurkeztu dio Gobernuari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere poza adierazten baitu prozesu judizialaren funtzionamendu zuzenarengatik, horrek egiaztatzen baitu zuzenbideko estatu demokratikoaren funtzionamendu egokia.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak honako hau erabaki du:

1. Gogobetetzea adieraztea prozesu judizialaren funtzionamendu zuzenarengatik, horrek egiaztatzen baitu zuzenbideko estatu demokratikoaren funtzionamendu egokia.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du, halaber, demokrazia batean ezinezkoa dela politikari jakin batzuk –politikari nazionalistak, kasu honetan– legeak betetzetik salbustea.

3. Zigorturiko politikariek demokraziarekiko mespretxu izugarria erakutsi dute, konstituzio-legezketasunari kolpe bat emateko baliatu baitute; hain zuzen, delitu horien erantzule direnetako batzuk boterera irits zitezzen ahalbidetu zuen legezketasun berberari.

4. Nafarroako erakundeetako ordezkariari eskatzea modu argi eta irmoan ager dezaten epai horrekiko errespetua eta men-egitea, Estatuaren botere demokratiko baten adierazpena den alde-tik, eta egoera lotsagarriak saihestea, hala nola 2017ko urrian gertaturikoa, Nafarroako Gobernu-ko lehendakariak eta zenbait gobernu-kidek beren babesa adierazi zieten orain sedizioagatik, ondasun publikoen bidegabeko eralgitzeagatik eta bestelako delitu larriengatik zigortuak izan direnei.

5. Lege demokratikoak eta epaiak mespretxatzen dituzten talde independentistek antolatu eta eragindako sabotaje eta kaleko indarkeria-ekintza guztiak arbuia eta gaitzestea.

6. Arbuioa eta harridura agertzea Kataluniako Generalitateko lehendakariaren jarrera dela-eta, autobien-mozketak bezalako sabotaje ekintzak babestu baititu eta beraietan parte hartu baitu, eta uko egin baitio Kataluniako milaka herritarren interesak aldeztu eta babesteari, ikusten dutelarik nola beren autoak erretzen dituzten, irainak edo erasoak pairatzen dituzten eta beren eskubide oinarrikoenak galarazten diren talde independentistek eragindako iskanbila eta txikizioak direla-eta.

7. Segurtasun kidego eta indarrak babestea ordena zibikoaren eta herritarren askatasunen alde egiten duten lan nekaezinagatik, lan hori gero eta baldintza gogor eta onartezinagoetan egiten baitute.

8. Espainiako Gobernuari babesa agertzea Kataluniako herri guztietako kaleetan konstituzio-ordena, bizikidetzak baketsua eta herritar guztien askatasuna lehenbailehen berreskuratzeko hartzen dituen neurri guztietan” (10-19/DEC-00070).

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga-pizgarriak ezartzeko aukerari buruzkoa.*JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkezturiko galdera, “Carried interest” delakoaren zergapetzea dela-eta zerga pizgarriak ezartzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan

Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Oraintsu jakin dugu Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere eskumenak baliatuz zerga-pizgarri berritzaile bat onetsi duela, arrisku-kapitaleko funtsak erakartzera bideratua. Aldaketa fiskal horrek PFEZari nahiz sozietateen gaineko zergari buruzko araudiari eragiten die.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

Gipuzkoako lurralde mugakidean onetsitako zerga-pizgarriak ikusita, Nafarroako Gobernuak aztertu al du carried interest izeneko tributazioarekin lotutako zerga-pizgarririk sartzeko aukera?

Baiezkoan, zeintzuk izan dira ondorioak eta ondorio horien zioa?

Iruñean, 2019ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Kudeaketa Kliniko eta Zerbitzu-ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Kudeaketa Kliniko eta Zerbitzu-ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren

Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Osasun Departamentuak hilaren zer egunetan izaten du eskura Kudeaketa Klinikorako eta Laguntzaren Ebaluaziorako Zerbitzuak itxarote-zerrendak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Zuzendaritzarentzat eginiko txostena?

2. Osasun Departamentuak ba al du asmorik itxarote-zerrendak direla-eta eginiko txostena Legebiltzarreko talde parlamentarioei igortzeko eskaria berariaz egin behar izan gabe? Hilaren zer egunetan igorri nahi du? Noiz hasiko da txostena bidaltzen?

3. Departamentuak ba al du asmorik itxarotzerrende berruzko txostena Osasun Atarian jartzeko? Hilaren zer egunetan jarri nahi du? Noiz hasiko da txostena atarian jartzen?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren agintari-taulari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren agintari-taulari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Osasun Departamentuak hilaren zer egunetan izaten du eskura Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko agintari-taula?

2. Osasun Departamentuak ba al du asmorik agintari-taula Legebiltzarreko talde parlamentarioei igortzeko eskaria berariaz egin behar izan gabe? Hilaren zer egunetan igorri nahi du? Noiz hasiko da txostena bidaltzen?

3. Departamentuak ba al du asmorik agintari-taula Osasun Atarian jartzeko? Hilaren zer egunetan jarri nahi du? Noiz hasiko da txostena atarian jartzen?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruzkoa.**CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Erriberriko Etengabeko Arretako Guneari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

tan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. Osasun Departamentuak zer egunetan utzi zuen Erriberriko Etengabeko Arretako Gunea gaueko sendagilerik gabe, ordutegi horretan arretako gunean erizain bat eta zeladore bat utziz?

2. Osasun Departamentuak zer egunetan itxi zuen Erriberriko Etengabeko Arretako Gunea gaueko ordutegian, hasiera batean utzi zituen erizaina eta zeladorea ere kenduta?

3. Osasun Departamentuak ba al du asmorik Erriberriko Etengabeko Arretako Gunea gaueko ordutegian berriz ere irekitzeko?

4. Osasun Departamentuak ba al du asmorik etengabeko arretako beste gunerik gaueko ordutegian ixteko legegintzaldi honetan? Zeintzuk?

5. Osasun Departamentuak ba al du etengabeko arretako gunerik ixteko? Zeintzuk?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, SISNA txostenari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, SISNA txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristi-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Osasun Departamentuak hilaren zer egunetan izaten du eskura SISNA txostena?

2. Osasun Departamentuak ba al du asmorik SISNA txostena Legebiltzarreko talde parlamentarioei igortzeko eskaria berariaz egin behar izan gabe? Hilaren zer egunetan igorri nahi du? Noiz hasiko da txostena bidaltzen?

3. Departamentuak ba al du asmorik SISNA txostena Osasun Atarian jartzeko? Hilaren zer egunetan jarri nahi du? Noiz hasiko da txostena atarian jartzen?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, kontsultetan itzarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, kontsultetan itzarote-zerrenda kontrolatze aldera Osasun Departamentuak duen kontingentzia-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

1. Osasun Departamentuak zer kontingentzia plan prestatu du kontsultetako itzarote-zerrenda kontrolatzeko, ikusita zerrendak azken 15 hilabeteetan okerrera egin duela? Planean jaso al da kirurgiako itzarote-zerrenda eta proba osagarrien itzarote-zerrenda kontrolatzeko neurririk?

2. Zer partidaren kargura finantzatzeko dira plan horretako "aparteko lanaldiak"?

3. Zer partidaren kargura finantzatu dira plan horretako "konpentsazio-lanaldiak"?

4. Zer partidaren kargura finantzatu dira plan horretako "lanaldi-luzapenak"?

5. Parlamentari naizen honek jakin nahi dut zein den honako kontzeptu hauek direla-eta urta-

rrilaren 1etik urriaren 30era bitarte metatutako gastu erreala eta zer partidarekin finantzatu diren gastu horiek: aparteko lanaldiak, autoituntzeak, konpentsazio-lanaldiak eta lanaldi-luzapenak.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, erretzeari uzteko tratamenduan vareziklina kostuarekiko eraginkorren den aukera gisa finantzatzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, erretzeari uzteko tratamenduan vareziklina kostuarekiko eraginkorren den aukera gisa finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

2018ko ekainean, Kataluniako Nazioarteko Unibertsitateko irakasle titularra eta Tabakismoaren Prebentziorako Batzorde Nazionalako Zuzendaritzako kidea den Marta Traperok zuzendutako azterlan bat argitaratu zen (Trapero Beltrán M et al. Cost-effectiveness of alternative smoking cessation scenarios in Spain: results from the EQUIPTMOD. *Addiction* 2018 Jun; 113 Suppl 1:65-75. Doi 10.1111/add.14090. Epub 2018 Mar 13), zeinean erretzeari uzteko alternatibak azterzen baitira kostuaren eta eraginkortasunaren ikuspuntutik. Azterlan horrek Europako Batzordearen 7. Esparru-programaren finantzaketa jaso zuen, eta babesa ematen dio kostuaren eta eraginkortasunaren aldetik eraginkorrena den aukera gisa vareziklina finantzatzeko aldera Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioak hartu duen erabakiari.

Ebidentzia hori eta Ministerioaren erabakia ikusita, Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak gogoan al darabil bere estrategia aldatzeko eta kostuaren eta eraginkortasunaren aldetik eraginkorrena den aukera finantzatzeko ala tratamendu-aukera guztiak finantzatzen jarraituko du?

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, erizaintzako azken Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, erizaintzako azken Lan Eskaintza Publikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Erizaintzako azken lan-eskaintza publikoa dela-eta egindako izapideen eta administrazioegintzen xehetasuna eta kronograma, bai eta prozeduraren parte bakoitzean izandako atzerapenen zergatiak ere, oposizioko azterketaren egunetik aitzina.

Iruñean, 2019ko urriaren 14an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Nafarroa-

ko Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Erriberan dagoen helduentzako euskara-ikastaroen eskaintzari buruzko informazioa bildu dugu.

Helduek euskara ikasteko ikastaroak eskaini ziren irailan zehar Nafarroako zenbait herritan (guk dakigunez, Cascanten, Tuteran eta Castejonan). Ikastaroak HOHIP-helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxe publikoek eskaintzen eta bultzatzen dituzte.

Castejonean kasuan uste dugu udala izan zela helduen oinarrizko hezkuntzako ikastetxe publikoari eskatu ziona euskara-ikastaro bat egin zezan, eskariari erantzuteko. Hasiera batean, HOHIPk baiezkota eman zuen, baina azkenean, ezagutzen ez ditugun arrazoiak direla medio, ez da euskara-ikastarorik eginen, nahiz eta 30 pertsona baino gehiagok izena eman duten.

Tuterako kasuan, HOHIPren zuzendariak berak egin ohi die eskaintza ahoz herritarrei, eta WhatsApp bidez zabaldu. Gutxienez ere 30 pertsonak eman behar zuten izena. Ikastaroa ez zen

ez afixen bidez ez HOHIPren webgunearen bidez iragarri, eta hala eta guztiz ere 53 pertsonak eman zuten izena gutxienez ere, eta zer maila duten jakiteko proba egin zitzaien (irailaren 18an egin zen proba bat, eta ez dakigu besterik egin ote zen).

Herri horietan guztietan antzeko prozedura baliatu zen: Ikastaroaren eskaintza eta publizitatea, izena emateko epea, zeinetan argazkia, nortasun agiriaren fotokopia eta HOHIPren eskabide orria bete behar baitziren ikastaroan izena emateko (eskabidearen goiburuan “Ikaslearen matrikularen fitxa” irakur daiteke, eta erdialdean, berriz, “Zer ikastarotan matrikulatzen den”, eta eskabidean ez denez euskara-ikastaroa ageri, izena ematen zutenei eskatzen zitzaien azpian “Euskera” jarrezaten bolalumaz, eta aldamenean izartxo bat),

eta IHB-ikaskuntzaren hasierako balorazioa izeneko proba.

Cascanten abian da ikastaroa, eta bi talde daude. Tuteran eta Castejonean, aldiz, ez da hala egin. Antza denz, Hezkuntza Departamentuaren ordezkariak eskatzaileei adierazi diete “eskaria aztertze” egin dela izena emateko prozedura, zer maila duten jakiteko proba barne.

Egoera ezohiko hori ikusita, Hezkuntza Departamentuari eskatzen diogu informazioa eman diezagun ohiz kanpoko prozesu horretan gertatuakari buruz, bai eta Castejonean eta Tuteran euskara ikasteko eskariari zer erantzun eman nahi dio ere.

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako lan-istripuen tasari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako lan-istripuen tasari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristi-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, Nafarroan lan-istripuen indizeak azken urteotan izandako igoerak sortutako kezka dela-eta, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1. 2015etik 2018ra bitarteko datuak (urtez urte) eta 2019ari buruz daukazun azken datuak, absolutuak, eta lana duen populazioaren arabera indizeak, Nafarroako lan-istripuei buruzkoak, larritasuna eta sektoreak zehaztuta.

2. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak legegintzaldi honetan ezarritako neurriak lan-istripuen aurka borrokatzeke.

3. Zehaztutako neurrien kronograma.

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako 2014-2020 Osasun Planeko Zainketa Aringarrien eta Minaren Zainketaren Estrategiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Diario de Noticias egunkarian 2019ko urriaren 14an argitaratutako erreportaje batean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Eriari Osasun Laguntza emateko zuzendariaren ahotan jartzen diren hitzen arabera, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak legegintzaldi honetarako daukan helburua da "zainketa aringarrien kultura hedatzea egituraren maila guztietan eta egiturari etekina atera diezaioketen erien artean". Gai horri dagokionez, Nafarroako 2014tik 2020ra bitarteko Osasun Planaren estrategia lehenetsietako bat da

Zainketa Aringarrien eta Minaren Estrategia, zeina Osasun Planean aurreko legegintzaldian ez arduradunik ez batzorde teknikorik izendatu ez zuen estrategia bakarra izan baitzen.

Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut:

1.- Osasun Departamentuak izendatu al du Zainketa Aringarrien eta Minaren Estrategiaren arduradunik eta estrategia horren batzorde teknikorik? Baiezkoan, erants bekio erantzun honi hori erazten duen foru agindua. Ezezkoan, noiz eta zer epetan eratuko da?

2.- Estrategia horretan zer helburu, jarduketatilo eta kronograma aurreikusten dira?

3.- Osasun Departamentuak onkologikoak ez diren zainketa aringarrien zer eredu ezarri nahi du? Prestazioa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak emanen du ala publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaren eredu mantenduko da? Etxeko ospitalizazioak zer eginkizun izanen du onkologikoak ez diren zainketa aringarrien eredu?

4.- Zer arrazoi dago Nafarroako Ospitaleguneko zainketa aringarrien unitatea etxeko ospitalizazioaren mende jartzeko? Zainketa aringarrien unitatetik etxeko arreta ematea aurreikusten al da?

5.- Osasun Departamentuak zer data darabil gogoan ospitaleko zainketa aringarrien programa Tuterako eta Lizarrako osasun barrutietan ezartzeko? Zer baliabide beharko dira zure ustez programa hori ezartzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroarako 2020rako dauden hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenen gainekoa.

MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko galdera, Nafarroarako 2020rako dauden hazkunde ekonomikoari buruzko aurreikuspenen gainekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Aurreikuspen ekonomikoak egiten dituzten erakunde ia guztiek egindako "beheranzko aurreikuspenak" ikusita, Gobernuak aurreikusita al dauka hazkunde ekonomikoaren aurreikuspen berri bat egitea 2020rako?

Baiezkoan, parlamentari naizen honek jakin nahi dut ea noiz egingen den aurreikuspen hori, eta prest dagoenean horren xehetasuna jaso nahiko nuke.

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

Galdera, etxebizitzak alokatzeko Poltsaren programari buruzkoa.

FRANCISCO PÉREZ ARREGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Pérez Arregui jaunak aurkezturiko galdera, etxebizitzak alokatzeko Poltsaren programari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Fran-

cisco Pérez Arregui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Honako hauen xehetasuna, udalez udal, 2016, 2017 eta 2018ko ekitaldietan eta orain arte:

- "Alokairu-poltsa" programari atxikitako etxebizitza-eskatzaileen kopurua.

- Udal bakoitzean esleitutako etxebizitzetatik zenbat diren titulartasun pribatukoak, zenbat diren toki entitatearenak eta zenbat, berriz, nortasun juridikokoak.

- Udal bakoitzean esleitutako etxebizitzetatik zenbat dauden alokatuta erosteko aukerarekin.

Iruñean, 2019ko urriaren 16an

Foru parlamentaria: Francisco Pérez Arregui

Galdera, 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkezturiko galdera, 2019ko urriaren 15ean Landa Eremuko Emakumearen Eguna ospatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel

Olave Ballarena andreak, Legebiltzarren Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuko departamentuek 2019ko urriaren 15ean ospatu zen Landa Eremuko Emakumearen Egunaren kariatara egindako jarduketak.

Ospakizuna urriaren 15a baino lehen egin aurretik zer bide eta hedabidetan iragarri ziren jarduketak.

2019ko urriaren 15ean ospatu zen Landa Eremuko Emakumearen Egunaren kariatara antolatutako ekitaldietan Nafarroako Gobernuak zer parte hartze izan zuen.

Iruñean, 2019ko urriaren 15ean

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta ordaina emateko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Legegintzaldirako lan-ildoak aurkezteko ager-raldian, Herritarrekiko Harremanetako kontseilari Ana Olo andreak azaldu zuen helburuetako bat dela Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekin-tzen biktimei errekonozimenduari eta errepara-zioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legea garatzea eta aplikatzea.

Zehazki, eta legeak berak ezartzen duenari jarraikiz, aipatu zuen Errekonozimendu eta Erreparazioarako Batzordea sortu nahi duela, kide anitzeko organo independente gisa eta honako egin-kizun hauekin: aurkeztutako eskabideak baloratu eta, foru lege honen babesean, eskabideak onar daitezen edo bazter daitezen proposatzea; eta, bidezkoa denean, biktima-izaeraren deklarazioa eta, kasua bada, erreparazio-neurriak proposatzea.

Zer kronograma, prozedura eta metodologia proposatzen dira 16/2019 Foru Legea garatzeko eta, zehazki, batzorde hori sortzeko?

Iruñean, 2019ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

